



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/2023 denboraldia

32. ZIRKULARRA

EUSKADIKO GAZTEEN LIGARAKO IGOERA-ALDIA

Gazteen Euskal Ligara igotzeko laugarren postua osatzeko, Batzar Nagusian erabakitako lehiaketa-oinarrien arabera antolatzen da aipatutako Igoera Fasea, honako arau hauen arabera:

1.- Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko maila goreneko Gazteen Ligan bigarren postuetan sailkaturiko taldeak:

C.F. Arambizkarra	(Alava)
C.D. Padura	(Bizkaia)
Hondarribia F.E.	(Gipuzkoa)

2.- Txapelketa-sistema

(HIRU BATEAN) izeneko formularen bidez egingo da. Partidek berrogeita bost minutu (45 m) iraungo dute, ekainaren 3an jokatuko dira Hondarribiko Hondartza futbol zelaian (belar artifiziala) eta honako partiden hurrenkera honekin:

C.D. Padura – Arambizkarra C.F.	17.00etan
1. Galtzailea – Hondarribia F.E.	18.00etan
1. Irabazlea – Hondarribia F.E.	19.00etan



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

3.- Arbitrajea

Neurketak zuzentzeko izendatutako hiru arbitroak lurraldeko maila gorenekoak izango dira.

Arbitraje-ordainagiriak parte hartzen duten hiru klubentzako ordainduko dituzte.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da Arbitroen Euskal Batzordeak gaitzen duen kontura, lehiaketa amaitu ondoren.

4.- Zigorrak

Txapelketaren ezaugarriak direla eta, Ohiko Ligaren zigorrak ez dute ondorerik izango bertan. Zigor horiek hurrengo denboraldian kontuan hartuko dira.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezzen eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

Bilbo, 2023ko maiatzaren 30a

ALLICA

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EUSKADIKO GAZTEEN LIGARAKO IGOERA-ALDIAREN ARAU OROKORRAK, "HIRU BATEAN" IZENENKO SISTEMAREN ARABERA.

JOKALARI KOPURUA

Talde bakoitzak 18 jokalaria aurkeztu ahalko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten.

JOKALARIEN ALDAKETAK

Partidetan, gehienez, hiru aldaketa egin ahalko dira. Ordezkoak, gehienez, zazpi izango dira.

KANPORATZEAK

Lehenengo partidaren kanporaturiko jokalaria oro ezin izango da bigarren partidako jokalaria-zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

BERDINKETAK

Balitzko berdinketak EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- Sartutako gol kopuru handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- Elkarren artean jolastutako partiden emaitzaren arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlea, bigarren partida jokatze aldera.

BALOIAK

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

-O-O-O-O-O-O-O-O-